
Euskal AEko unibertsitateetako ikasle-kopuruak behera egin zuen 2016-17 ikasturtean hirugarren urtez jarraian

Emakumeak (%53) gizonak baino gehiago izan ziren unibertsitate-geletan

2016-17 ikasturtean 66.286 ikasle matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan, %0,8ko beherakada aurrekoaren aldean, Eustaten datuen arabera. Nahiz eta gradu eta graduondoetan matrikulaturiko ikasleak igo, jaitsiera hori gertatu zen, ez baitziren aski izan lehen eta bigarren zikloko ikasketen desagertpenak orekatzeko.

Graduko ikasleak guztien %85 izan ziren, aurreko urtean baino %0,7 gehiago. Halaber, ia zeharo desagertu ziren lehen eta bigarren zikloko ikasketak. Gainerako %15a matrikulatu zen graduondoko ikasketetan; alegia, master ofizialetan eta doktoretza-ikastaroetan, zeinetan %2,6ko igoera gertatu baitzen masterretan eta %0,6ko jaitsiera doktoretzen kasuan.

Unibertsitate publikoak hartu zituen 4 ikasletik 3, azken zazpi urteetan ehuneko 7 puntu galduta. Master ofizialetan ikasleen %60 zentro publikoetan egon ziren; doktoregoetan, %86.

Ikasleen %59k Bizkaian ikasi zuten, %29k Gipuzkoan eta %12k Araban.

Emakumeek unibertsitate-geletan nagusi izaten jarraitzen dute

Gehiengoak dira emakumeak unibertsitate-ikasleen artean. Graduko ikasketetan, ehuneko 8 puntuz dira gehiago gizonen aldean; 3,5 puntuz doktoregoetan eta 1,8z masterretan.

Nolanahi den ere, azken sei urteetako matrikulen eboluzioa ikusirik, antzeman da gizonen presentziak gora egin duela %1,9, eta emakumeenak %0,3.

Ikasketak aukeratzeko orduan bada alderik sexuen artean, oraindik ere

Graduko matrikulen erdiak ikasketa hauetan kontzentratu ziren: Enpresen administrazio eta zuzendaritza (5.610), Lehen mailako hezkuntza (3.845), Zuzenbidea (3.520), Psikologia (2.810), Ingeniaritza mekanikoa (2.269), Haur-hezkuntza (2.110), Medikuntza (1.864), Erizaintza (1.521), Industria-teknologiako ingeniaritza (1.419), Gizarte-hezkuntza (1.411) eta Gizarte-lana (1.234).

Gizon artean, erdiak 11 karreratan banatu ziren; horietatik 4 ingeniaritzak: Enpresen administrazio eta zuzendaritza (2.785), Ingeniaritza mekanikoa (1.906), Lehen mailako hezkuntza (1.677), Zuzenbidea (1.373), Industria-teknologiako ingeniaritza (1.029), Ingeniaritza elektronikoa industrial eta automatikoa (973), Ingeniaritza informatikoa (789), Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak (754), Psikologia (646), Negozioen kudeaketa (550) eta Medikuntza (533).

Emakumeen erdiak, aldiz, zortzi titulaziotan egon ziren: Enpresen administrazio eta zuzendaritza (2.825), Lehen mailako hezkuntza (2.168), Psikologia (2.164), Zuzenbidea (2.147), Haur-hezkuntza (1.886), Medikuntza (1.331), Erizaintza (1.262) eta Gizarte-hezkuntza (1.076).

Graduko matrikulazioen %26, aurreneko aldikoak

2016-17 ikasturtean 14.757 ikasle aurreneko aldiz matrikulatu ziren graduren batean Euskal AEko unibertsitateetan; "berriak" %26 izan ziren, aurreko ikasturtean baino %3,5 gutxiago.


Unibertsitate publikoetan %3,8 ikasle berri gutxiago izan ziren; hala ere, berrien %72 publikoetara joan ziren, eta %28 pribatuetera.

Ikasketak 12.867 gaztek bukatu zituzten 2016-17 ikasturtean; horietatik %56 emakumeak izan ziren

2017an ikasketak amaitu zituzten 12.867 gazteetarik, 8.897k graduatu-titulua eskuratu zuten, 3.204k master ofizialekoa eta 764k doktoregokoa. Aurreko ikastaroaren aldean, positiboa izan zen aldakuntza graduatan (%2,2) eta master ofizialetan (%1,0), baina onarturiko tesiak 80 gutxiago izan ziren (-%9,5). Jaitsiera hori koiunturala da, aurreko ikasturtean izan zen gehikuntza nabarmenari esker gertatua, doktoretza-plan zaharren desagertpenarengatik.

Euskal AEko unibertsitarien erdiak ia (%48) graduatu ziren zientzia sozial eta juridikoetan; ondoren, ingeniartzetan eta arkitekturan (%24). Gainerako adarretan txikiagoak izan ziren zifrak: osasun-zientzietan %13, arte eta humanitateetan %8 eta zientzietan %6.

Euskal AEko unibertsitateetan graduatutako ikasleak sexuaren eta ikasketa adarraren arabera (%). 2016/2017 ikasturtea



Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika

10 emakumetatik 5 zientzia sozial eta juridikoetan graduatu ziren, 1,8 osasun-zientzietan eta 1,3 ingeniartzetan. 10 gizonetatik 4 ingeniartzetan graduatu ziren, eta beste 4 zientzia sozial eta juridikoetan.

Informazio gehiago:

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz